BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

3702

EBAZPENA, 2011ko uztailaren 22koa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko laguntzak emateko 2011ko ekitaldiko deialdia iragartzen duena.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko uztailaren 5eko Aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren laguntzen markoa finkatzen da, turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko diren laguntzena alegia.

Aipatutako aginduaren 5. artikuluak dioenez, deialdia egin behar da hor iragarritako dirulaguntzak 2011ko ekitaldian emateko, eta, horretarako behar diren arauak eman behar dira.

Horiek horrela, aipatutako aginduaren 5. artikuluan ezarritako eskumenaren arabera, honako hau

EBATZI DUT:

1 artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea hauxe da: Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko uztailaren 5eko Aginduan aurreikusitako 2011ko ekitaldiko laguntzetarako deialdia egitea. Izan ere, agindu horren bitartez arautu ziren turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko laguntzak.

Horretarako, 1.000.000 euro bideratuko dira, 5/2010 Legean (abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena) ezarritako aurrekontu-partidetan esleitutako kredituen kargura.

2 artikulua.– Betekizunak.

Turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko laguntzak arautzen ditu Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko uztailaren 5eko Aginduak, eta laguntza horiek eskuratu ahal izateko, onuradun-izaera izan beharko dute eskatzaileek, erreferentziako aginduaren 3. artikuluan ezarritakoa betez.

3. artikulua.– Eskabideak eta epea.

1.– Programa honetako parte-hartzaileek turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko laguntza-programa arautzen duen Aginduaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera bete eta aurkeztu beharko dituzte eskabidea eta agiri osagarriak. Aukeratutako izapidea telematikoa bada, eskabide-eredua eskuratzeko, eta eskabide hori Administrazioan aurkezteko www.euskadi.net/turismo webgunean sartu beharko da. Bestela, www.euskadi.net/turismo webgunean eskabide-eredua eta inprimakiak bete eta grabatu ahal izango dira, gero inprimatu eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde-ordezkaritzan, dagokion horretan, aurkezteko, zuzenean edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako edozein bide erabilita.

2.– Deialdiko laguntzetarako eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da; amaitu, berriz, 2011ko abuztuaren 22an (hilabete bat gutxienez).

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da indarrean.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 22a.

Merkataritza eta Turismoko sailburuordea,
MARÍA PILAR ZORRILLA CALVO.